



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2021EKO EKAINA

**Ekaina oso hezea eta beroa izan zen. Azken urteetako euritsuenetariko bat izan zen, izan ere zenbait estaziotan prezipitazioaren errekorrak izan ziren, hilabete osoan pilatutako kopuruan eta intentsitateetan, bai ordubetean bai 10 minutuan pilatutako kopuruetan. Igorritako abisu gehienak prezipitazio handiagatik izan ziren, 12 abisu hori eta alerta laranja bat. Bestalde, uda astronomikoa egun hotzen segida luze batekin estreinatu genuen.**

### Prezipitazioa

Pilatutako prezipitazioaren arabera, hilabetea oso hezea izan zen. Esanguratsua da Gipuzkoa ekialdean pilatutako prezipitazioa, batez ere Donostialdean (Eskas 239.6 mm, Oiartzun 192.4 mm, Miramon 189.8 mm, Zegama 143.7 mm), eta baita Araba ekialdean ere (Iturrieta 126.9 mm, Ilarduia 121.4 mm, Kapildui 120.6 mm, Salvatierra 117.5 mm). Bizkaiko kostaldean ere balioak deigarriak izan ziren (Matxitxako 154.1 mm, Arboleda 153.5 mm, Punta Galea 141 mm, Galdakao 133.5 mm). Eskualde horietan, urteko sasoi honetan ohikoa denaren ia bikoitza edo gehiago jaso zen. Kopuru txikiak Araba mendebaldean neurtu ziren (Sarria 54.4 mm, Espejo 58.8 mm, Tobillas 61.5 mm, Zambrana 64.8 mm).

Orokorrean, XXI mendeko hirugarren ekain euritsuena izan zen, 2008 urtekoaren antzekoa, eta 2010 eta 2013 urtekoen atzetik. Hala ere, Arabako Errioxan eta Arabako Mendialdeko, Goierriko eta Donostialdeko zenbait tokitan mende honetako errekorra izan zen (Párganos 103.5 mm, Navarrete 114.5 mm, Ordizia 127.4 mm, Ereñozu 190.5 mm).

Logikoki euri-egun kopurua batezbesteko klimatologikoaren gainera egon zen, lurralde osoa kontuan izanik 10 egun inguru, bereziki altua Mediterraneo isurialdean. Gehienak hilabetearen hasieran eta hirugarren astean pilatu ziren. Horien artean 6 egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen ( $\geq 30$  mm), eta are esanguratsuagoa izan zen 7 egunetan zaparrada trumoiatsu handiak bota zituela ( $\geq 15$  mm/h).

Hilaren 3an, Iberiar penintsularen iparraldetik igaro zen aska batek konbekzioa erraztu zuen. Ezegonkortasun lerro bat eratu zen eta goizetik ekaitz lerroek EAE zeharkatu zuten hego-mendebaldetik hasita. Zaparrada ertain-handiak bota zituen, batez ere EAERen ekialdean (Kanpezu 19 mm/h, Moreda 18.4 mm/h, Zegama 16.5 mm/h, Eskas 14.5 mm/h) eta Bizkaiko zenbait tokitan (Venta Alta 14.2 mm/h, Galdakao 13.5 mm/h, Almike 12 mm/h). Horrez gain, arratsaldean Arabako Errioxan eta Kanpezun txingorra egin zuen eta kalteak eragin zituen ortuetan eta laborantzetan.

Egoerak hurrengo eguneko eguerdira arte iraun zuen, hilaren 4a arte. Orduan, ekaitzek Arabako Kantaurin eta Gernika-Bermeo eskualdeen artean dagoen eremuan eragin zuten (Orozko 14.3 mm/h, Igorre 12.7 mm/h, Amorebieta 11.9



mm/h, Muxika 10.5 mm/h, Areta 9.4 mm/h), eta prezipitazioa iraunkorra izan zen EAeren ekialdean, hala ere, eragina txikiagoa izan zen (Kanpezu 10.4 mm/h, Navarrete 8.9 mm/h). Egunean pilatutako prezipitazio totala ere esanguratsua izan zen (Eskas 54.5 mm, Añarbe 39.4 mm, Ameraun 34 mm, Behobia 32.3 mm).

Hilaren 15etik 19ra bitartean zaparrada trumoitsu handiak bota zituen, batzuetan oso handiak, Penintsulan kokatu zen depresio hotz baten eraginez. Hilaren 15ean zaparradek EAeren hegoaldean eragin zuten (Herrera 16.4 mm/h, Trebiño 14.8 mm/h, Kapildui 13.7 mm/h, Abetxuko-CHE 10.6 mm/h). Hilaren 16an, lurralde osora zabaldu ziren eta bereziki ekialdean eragin zuten (Iturrieta 31.2 mm/h, Ilarduia 23.3 mm/h, Alegia 20.1 mm/h, Zegama 16.9 mm/h, Ordizia 16.6 mm/h, Miramon 15.6 mm/h) eta kostaldearen mendebaldean (Zalla 19.8 mm/h, Arboleda 17.2 mm/h). Hilaren 17an, intentsitate handienak Kantauriko bailaretan neurtu ziren (San Prudentzio 30.1 mm/h, Urkiola 26.8 mm/h, Estanda 21.3 mm/h, Mañaria 18 mm/h, Ordizia 16.4 mm/h, Bidania 15.1 mm/h) eta baita Araba mendebaldean ere (Abetxuko-CHE 25.8 mm/h, Subijana 16.8 mm/h, Espejo 15.6 mm/h). Hilaren 18an, zaparradak EAE osoan bota zituen, eta egun hartan batez besteko intentsitate altuenak neurtu ziren, bereziki ipar-mendebaldean (Punta Galea 28.7 mm/h, Sodupe 23.8 mm/h, Arboleda 22.8 mm/h, Cerroja 19.1 mm/h, Saratxo 17.8 mm/h), Bizkaia barnealdean (Otxandio 19.6 mm/h, Urkiola 15.8 mm/h) eta Gipuzkoa ekialdean (Ameraun 28.4 mm/h, Oiartzun 20.7 mm/h, Ereñozu 17.9 mm/h). Hilaren 19rako, depresio hotza bete egin zen ia desagertu arte, baina oraindik ezegonkortasun apur bat geratzen zen eta zaparrada batzuk bota zituen, gehienak Gipuzkoa ekialdean (Ameraun 21.9 mm/h, Oiartzun 20.8 mm/h, Ereñozu 18.2 mm/h).

Ondorengo egunetan zaparrada mardulek eta txingorrek zereal, patata, arto eta zuhain laborantzetan kalteak eragiten jarraitu zuten, eta baita Arabako Errioxako mahastietan ere. Bereziki hilaren 16an eta 18an eragin zuten Arabako Mendialdean, Enkarterrietan eta Bilbo Handian.

Gertaera horretan, XXI mendean, ordubeteen pilatutako prezipitazio maximoko errekorrak izan ziren EAeren ekialdeko eta Bizkaia ipar-mendebaldeko zenbait tokitan: Iturrieta, Estanda, San Prudentzio, Ameraun, Andoain, Punta Galea, Arboleda eta Cerroja.

Azken eskualde horretan, 10 minutuan pilatutako prezipitazio maximoaren errekorra ere gainditu zen estazio gutxi batzuetan: Punta Galean, Arboledan eta La Garbean.

Punta Galea-ko kasuan, urte osoko errekorrak ere hautsi ziren, hain zuzen efemeride berriak lortu ziren 10 minutuan (12.8 mm/10min) eta ordubeteen (28.7 mm/h) pilatutako prezipitazio maximoetan.

Intentsitateez gain, hilaren 16tik 18ra bitartean azpimarragarria da egunean pilatutako prezipitazioa, zenbait lekutan oso ugaria izan baitzen. Hilaren 16an EAeren hego-ekialdean (Iturrieta 53.2 mm, Ilarduia 51.1 mm, Navarrete 40.1 mm/h, Zegama 38.1 mm). Hilaren 17an, EAeren zenbait tokitan (Eskas 39.6 mm,



Behobia 38.5 mm, San Prudentzio 38.4 mm, Urkiola 33.2 mm, Abetxuko-CHE 30 mm). Eta hilaren 18an, hilabete osoko baliorik altuenak neurtu ziren Bilbo Handian (Punta Galea 61.1 mm, Arboleda 55.7 mm, Ameraun 44.5 mm, Sodupe 42.9 mm, Galindo 42.8 mm).

Gertaera horiez gain, hilaren 23an, prezipitazioa oso ugaria izan zen berriro ere, zehazki kostaldean (Miramon 56.7 mm, Eskas mm, Ereñozu 48.2 mm, Sangroniz 41.3 mm, Oiartzun 40.9 mm, Almike 36.9 mm).

**Taula 1: Azken urteetan ekainean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
Deusto	104.1	58.8	15.1	38.3	62.0	38.2	47.7	19.1	96.7	41.4
Lasarte	139.4	108.7	67.1	94.2	71.8	40.8	90.7	64.8	159.0	50.7
Arrasate	80.9	73.4	35.4	68.2	74.5	47.4	62.6	23.9	144.8	32.0
Abetxuko	83.0	45.8	14.4	40.6	57.3	45.5	43.5	36.4	96.6	19.2
Párganos	103.5	48.0	28.0	37.4	68.6	13.1	58.5	19.1	69.8	23.0

## Temperatura

Ekaineko batez besteko temperatura beroa izan zen. Kostaldean 18 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 16 °C-ren muga gainditu zuen, 1980-2010 deboraldi arruntaren batezbestekoa baino 0.4 °C altuagoa. Nahiz eta kalifikazioa beroa izan, mende honetan orain arte izandako ekainekin alderatuz, beroenetatik urrun dago, konkretuki erdiko posizioetatik behera.

Egun beroen kopurua hotzena baino handiagoa izan zen, baina udako solstiziotik aurrera egun hotzak nagusitu ziren. Hilaren 4a eta 5a ere egun hotzak izan ziren.

Hilaren 13a egun beroena izan zen eta balio altuenak Kantauriko bailaretan neurtu ziren (Gardea 36.1 °C, Saratxo 35.8 °C, San Prudentzio 35.7 °C, Berna 35.5 °C, Sodupe 35 °C). Ebro ondoko eskualdean ere argi eta garbi gainditu zuten 30 °C-ren muga (Zambrana 34.2 °C, Párganos 32.4 °C, Moreda 32.3 °C). Kostaldean temperatura maximoa 25-30 °C artekoa izan zen (Oiartzun 30.9 °C, Almike 27.6 °C, Miramon 27.7 °C, Oleta 29.5 °C).

Hilaren 10an hasi zen hilabeteko denboraldi beroena eta 16ra arte iraun zuen. Hurrengo egunean, fronte bat iritsi eta beroaldia bukatu zen, maximoak asko jaitsi baitziren. Ondoren, tenperaturak balio apaletan jarraitu zuen udako solstizioan sartu arren. Soilik hilaren 26an izan genuen uda garaiko temperatura.

Espero zitekeenaren kontra, minimo absolutuak hilabetearen amaieran neurtu ziren. Zehazki, hilaren 28an neurtu ziren, goi-latitudeetatik zetorren aire hotzeko poltsa txiki bat Bizkaiko golkoan kokatu zenean. Araba erdialdeko estazio askotan temperatura 5 °C-tik jaitsi zen (Iturrieta 2.7 °C, Egino 3.4 °C, Navarrete 3.6 °C, Agurain 3.7 °C).



Bukatzeko, Kantauri isurialdean intsolazioa urteko sasoi honetan ohikoa dena baino baxuagoa izan zen, %20 inguru baxuagoa. Mediterraneo isurialdean, aldiz, eguzki orduak ohikoak izan ziren. Hiriburuei dagokienez, Bilbaok eta Donostiak 148 eta 153 ordu izan zituzten, hurrenez urren; Gasteizek 215 ordu inguru.

**Taula 2: Ekainean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012
<b>Deusto</b>	18.4	17.8	18.0	18.8	19.3	18.8	19.4	19.3	16.2	19.3
<b>Lasarte</b>	17.9	17.3	17.6	18.1	19.4	17.9	18.3	18.5	15.7	18.7
<b>Arrasate</b>	17.5	16.2	17.1	17.2	18.7	17.0	17.8	17.8	14.6	17.8
<b>Abetxuko</b>	16.2	15.9	17.6	17.2	18.6	16.9	18.1	17.7	14.7	17.9
<b>Párganos</b>	18.1	17.4	19.6	18.1	20.6	18.4	19.6	18.5	15.9	19.3

## Haizea

Ipar-osagaiko haizea nagusitu zen. Gainera, ez ziren balio oso esanguratsuak neurtu.

Hilabetearen lehenengo orduetan hegoaldeko haizea ibili zen eta haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren, bai haizeguneetan bai haizeguneak ez diren tokietan (hilaren 1ean 101.3 km/h neurtu ziren Matxitxakon, 88.9 km/h Oizen, 86 km/h Orduña-n eta 78.3 km/h Moredan).

Hilaren 2tik aurrera iparraldeko haizea nagusitu zen eta ez zen oso indartsu ibili, baina hilaren 3an, haize-bolada oso gogor bat neurtu zen ekaitz-eremuan (90.7 km/h Moreda). Hilaren 15ean, ekaitzei lotuta, ufada oso gogor batzuk neurtu ziren (88.5 km/h Orduña, 80.1 km/h Zaldiaran, 72.7 km/h Kapildui). Hilaren 16an, egoera berdintsua errepikatu zen eta haize-bolada oso gogorrak izan ziren ekaitz-eremuetan (100.9 km/h Herrera, 86.8 km/h Orduña, 83.6 km/h Orduña). Hurrengo egunetan, iparraldeko haize ahula ibili zen, arratsaldetan tarte biziakin. Hilaren 20an, egunaren lehen zatian hego-osagaiko haizea ibili zen, bolada oso gogorrekin (94.9 km/h Cerroja, 93.1 km/h Punta Galea eta 91.3 km/h La Garbea). Gainerako egunetan iparraldeko haizea nagusitu zen.

## Analisia

### Ekainaren 1etik 4ra

Hilabetea eguraldi ezegonkorrekin hasi zen, baina ez zuen garrantzizko ondoriorik izan lehenengo bi egunetan. Maiatzaren amaieran eragin zigun goigeruzetan isolaturiko depresio (GIDE) txikiaren eraginpean jarraitu genuen eta lurrazalean baxu txiki batean islatu zen, iparralderantz mugitu zena. Horrela,



ezegonkortasuna egon arren, eguraldia lasaia izan zen hilaren 1ean eta 2an; hodeiak izan ziren, batez ere hilaren 1ean eta zerua garbiago egon zen hilaren 2an. Hilaren 3an, GIDEa mugitu eta fronte bat igaro zen, ondorioz, eguraldia aldatu egin zen. Zaparrada trumoitsuak bota zituen lurralde osoan, eta txingorra egin zuen, kalteak eraginez Araba hegoaldeko zenbait tokitan. Hilaren 4an, ezegonkortasuna ekialderantz baztertuz eta eguraldia hobetuz joan zen, baina prezipitazioa ugaria izan zen, batez ere ekialdean.

### **Ekainaren 5etik 13ra**

Hilaren 5etik aurrera, eguraldia askoz egonkorragoa izan zen eta tenperaturak gora egin zuen. Atlantikotik presio altuak sartzen joan ziren gainazalean zubi antizikloniko handi bat eratuz, Azoreetatik Britainiar uharteetaraino zabaldu zena. Iberiar penintsularen hegoaldean, arratsaldetan, baxu termikoa sortu zen inguru horretan izandako tenperatura altuen eraginez. 850 hPa-eko mailan, tenperatura igotzen joan zen zenbait egunetan 15 °C-ra iritsi arte. Hala ere, gainazalean ipar-osagaiko haizea nagusitu zenez, tenperatura hilaren 13ra arte ez zen igo. Eguraldia egonkorra izan zen, zerua hodei gutxirekin egon zen, batzuetan erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak tartekatu ziren, eta ipar partean estratuak. Egoera aldatu egin zen denboraldi egonkor haren amaieran. Presio altuak desagertu egin ziren, 500 hPa-eko mailan GIDE txiki bat sartu eta Penintsularen mendebaldean kokatu zen. Haizeak hegoaldera egin zuen eta 850 hPa-eko mailan 20 °C-raino iritsi zen aire masa sartuz joan zen hilaren 13tik 14ra bitartean. Horrela, tenperatura 35 °C-raino igo zen zenbait tokitan.

### **Ekainaren 14tik 20ra**

Hilaren 14an egoera aldatu egin zen eta ezegonkortasuna asko handitu zen. Azoreetako antizikloia mendebaldean baztertuta zegoen eta Penintsulan presio baxuak nagusitu ziren, ipar partean ekaitz giroarekin. Atlantikotik aska bat askatu zen eta penintsularen mendebaldean zegoen GIDE txikia xurgatu zuen. Hilaren 16tik aurrera, Penintsulan kokatu zen depresio hotz batek baldintzatu zuen eguraldia. Depresio horrek Penintsulan ibilbide erratikoa egin zuen eta konbekzio garrantzitsua eragin zuen. Tenperaturak altua izaten jarraitu zuen hilaren 17ra arte. Orduan ezegonkortasun horri lotutako fronte hotz bat iritsi zen eta tenperatura asko jaitsi zen. Hilaren 15etik 18ra bitartean, zaparradak eta ekaitzak sarri bota zituen, bereziki arratsaldetan.

### **Ekainaren 21etik 30era**

Hilabeteko azken egunetan eguraldia Bizkaiko golkotik igaro ziren aire hotzeko masen ibilbide askeek baldintzatu zuten. Zehazki 3 GIDE-k ia bata bestearen atzetik eragin ziguten. Lehenengoa hilaren 20an askatzen hasi zen eta hilaren 21ean Kantauri mendebaldean kokatu zen. Gainazalean, depresio baten erdiguneak Kantauri itsasoa zeharkatu zuen eta hilaren 22an Frantzia sartu eta indarra galtzen joan zen. Jarraian, aska beretik aire hotza askatu zen berriro ere, orduan gainazalean ez zuen islarik izan. Gauzak horrela, hilaren 21etik 23ra bitartean tenperatura baxuak izan ziren eta prezipitazioa, oro har, trumoitsua izan zen. Hilaren 24an eta 25ean, eguraldia egonkor egin zen, eta, aldi berean, beste GIDE bat sortzen hasi zen. Goi-latitudeetatik jaitsi zen eta hilaren 27an hasi ginen eragina nabaritzen, bereziki Kantauri isurialdean, fronte hotz batek



lurralde zeharkatu zuenean. GIDE hura Bizkaiko golkoaren inguruan mugitu zen hilaren 29ra arte. Orduan Frantzian sartu zen eta gailur txiki bati bidea ireki zion hilabetearen azken egunean. Hilaren 27tik 29ra bitartean berriro ere tenperatura hotza izan genuen, eta euri apur bat egin zuen.






## Oinarrizko datu estatistikoak

**Taula 3: 2021eko ekaineko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak
Deusto	18.4	22.1	32.2	15.3	10.1	0	104.1	31.4	9
Lasarte	17.9	22.0	32.3	14.3	11.6	0	139.4	31.1	10
Arrasate	17.5	23.3	34.3	13.0	7.6	0	80.9	25.8	9
Abetxuko	16.2	23.2	31.6	10.6	4.7	0	83.0	22.0	11
Páganos	18.1	25.1	32.4	12.3	8.0	0	103.5	27.1	10



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




■ Pilatutako prezipitazioa 
 ● Temperatura minimoa 
 — Batez besteko tenperatura 
 ■ Temperatura maximoa




# Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa  
*Precipitación observada*




Prezipitazio normala  
*Precipitación normal*



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



Prezipitazio normalarekiko portzentaia  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*







## Muturreko balioak

### Ekaineko prezipitazio totala

Izena	Aurtengo errekorra (mm)	Aurreko errekorra (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
	2021eko ekaina	XXI mendeko ekaina		
Ereñozu	190.5	181.5	2013	1999
Ordizia	127.9	127.4	2010	1999
Navarrete	115	114.5	2006	1999
Párganos	103.5	77.4	2010	2004
Miramón	189.8	176.6	2013	2010
Sangroniz	124.8	109	2013	2012
Moreda	80.8	67.7	2013	2012
Galindo	110.4	87.4	2017	2013
Venta Alta	107.5	92.3	2020	2014
Kanpezu	105.6	91.2	2017	2014
Sodupe-Cadagua	94.2	68.5	2017	2015
Ilarduia	121.4	109.8	2017	2015
Galdakao	133.5	89.1	2020	2017
Abetxuko-CHE	91.6	51	2020	2019

### Ordubeteen pilatutako prezipitazio maximoa ekainean

Izena	Aurtengo errekorra (mm/h)	Data	Aurreko errekorra (mm/h)	Data	Estazioa jarritako urtea
	2021eko ekaina		XXI mendeko ekaina		
Punta Galea	28.7	18/06/2021	14.8	03/06/2003	1992
Iturrieta	31.2	16/06/2021	16.8	23/06/2014	1999
Estanda	21.3	17/06/2021	15.3	01/06/2008	1999
San Prudentzio	30.1	17/06/2021	25.3	03/06/2020	1999
Ameraun	28.4	18/06/2021	26.8	16/06/2006	1999
Andoain	16.6	16/06/2021	15.7	09/06/2007	1999
Cerroja	19.1	18/06/2021	17.8	16/06/2006	2001
Arboleda	22.8	18/06/2021	14.1	01/06/2008	2004
Trebiño	14.8	15/06/2021	13.1	20/06/2014	2007
Arteaga	11.7	18/06/2021	11.6	21/06/2014	2011
Moreda	18.4	03/06/2021	10.5	08/06/2017	2012
Galindo	15.4	18/06/2021	10.3	15/06/2015	2013



Venta Alta	14.2	03/06/2021	13.7	26/06/2000	2014
Sodupe-Cadagua	23.8	18/06/2021	9	14/06/2016	2015
Ilarduia	23.3	16/06/2021	17.2	03/06/2017	2015
Kanpezu	19	03/06/2021	15.8	08/06/2017	2015
Galdakao	13.5	03/06/2021	9.7	04/06/2018	2017
Abetxuko-CHE	25.8	17/06/2021	5.8	11/06/2020	2019
Zalla	19.8	16/06/2021	19.3	07/06/2003	2020

### Urteko prezipitazio maximoa ordubeteen

Izena	Aurtengo errekorra (mm/h) 2021	Data	Aurreko errekorra (mm/h) XXI mendea	Data	Estazioa jarritako urtea
Punta Galea	28.7	18/06/2021	27.7	16/09/2009	1992
Sodupe-Cadagua	23.8	18/06/2021	19	09/07/2017	2015
Ilarduia	23.3	16/06/2021	23.1	04/07/2018	2015
Abetxuko-CHE	25.8	17/06/2021	21	07/11/2020	2019

### 10 minutuan pilatutako prezipitazio maximoa ekainean

Izena	Aurtengo errekorra (mm/10min) 2021eko ekaina	Data	Aurreko errekorra (mm/10min) XXI mendeko ekaina	Data	Estazioa jarritako urtea
Punta Galea	12.8	18/06/2021	12.3	03/06/2003	1992
La Garbea	9.4	18/06/2021	9.3	08/06/2007	1999
Arboleda	11.8	18/06/2021	8.1	13/06/2007	2004
Trebiño	9.1	15/06/2021	5.4	20/06/2014	2007
Galindo	7.7	16/06/2021	5.9	08/06/2017	2013
Ilarduia	12.7	16/06/2021	6.5	14/06/2015	2015
Sodupe-Cadagua	8.5	18/06/2021	3.4	04/06/2016	2015
Eskas	7.8	03/06/2021	7.7	03/06/2018	2017
Abetxuko-CHE	12.8	17/06/2021	3.2	05/06/2020	2019
Mallabia	2.8	21/06/2021	2.4	04/06/2020	2020

**Urteko prezipitazio maximoa 10 minutuan**

Izena	Aurtengo errekorra (mm/10min) 2021	Data	Aurreko errekorra (mm/10min) XXI mendea	Data	Estazioa jarritako urtea
Punta Galea	12.8	18/06/2021	12.3	03/06/2003	1992
Sodupe-Cadagua	8.5	18/06/2021	8.4	22/08/2015	2015
Ilarduia	12.7	16/06/2021	12.2	21/07/2015	2015
Abetxuko-CHE	12.8	17/06/2021	11.2	09/05/2020	2019



## Muturreko egoerak

**Ekainean 14 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 12 prezipitazio handiagatik, 1 prezipitazio iraunkorragatik eta 1 enbatagatik.**

**Horrez gain, alerta laranja bat igorri zen prezipitazio handiagatik.**

- Hilaren 1ean, aurreko egunetan izandako ezegonkortasunaren hondarrak izan genituen GIDE txiki batekin eta bere islarekin gainazalean. Arratsaldean zaparrada ertainak bota zituen Araba hegoaldean eta hego-ekialdean.

Estazioa	Prezipitazioa ordubete	Ordua UTC
Kanpezu	9.1	17:10
Páganos	9.1	16:30

*Asteartea, hilak 1: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.*

- Hilaren 3an, GIDE bat Ipar Atlantikoan kokatu zen, Britainiar uharteren hego-mendebaldean, eta ezegonkortasuna eragin zuen. Arratsaldean zaparrada trumoitsuak bota zituen eta Araba hegoaldean txingorra egin zuen. Azpimarragarriak dira Kanpezuko estazioan neurtutako 10.3 mm/10'. Moreda inguruan izan zen ekaitz-eremuan 90.7 km/h-ko haize-bolada neurtu zen. Hilaren 4an, GIDEa ekialderantz mugituz eta betez joan zen eta ezegonkortasuna gutxitu egin zen, hala ere, ekialdean prezipitazioa oso ugaria izan zen, adibidez: 55 mm jaso ziren Eskasen 24 orduan.

Estazioa	Prezipitazioa ordubete (mm)
Kanpezu	19
Moreda	18.4
Orozko	14.3
Igorre	12.7

*Osteguna, hilak 3: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 12etatik 24etara ordu lokala.*

*Ostirala, hilak 4: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 00etatik 15etara ordu lokala.*

- Hilaren 14tik 16ra bitartean, bereziki arratsaldetan, bero-hodeiak garatu ziren eta zaparrada trumoitsu handiak bota zituen. Ezegonkortasuna Portugalen hego-mendebaldean, Atlantikoan, zegoen GIDE batek eragin zuen. Esanguratsuak dira hilaren 16ko datuak, Iturrietan esaterako, 31.2 mm jaso ziren ordubete.



Estazioa	Prezipitazioa ordubetea (mm)
Iturrieta	31.2
Ilarduia	23.3
Alegia	20.1

Astelehena, hilak 14: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Araban 15etatik 21etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 16: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 16: Abisu Horia itsasaldeko-arriskuagatik: Enbata 15etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 17an, zirkulazio orokorretik aire masa hotz bat askatu eta GIDE bat sortu zen. GIDEa Portugalgo kostaldean barrena mugitu zen. Gainazalean, oro har, ipar-osagaiko haizea nagusitu zen. Arratsaldean ekaitzak izan ziren eta azpimarragarria da ordubetea pilatu zen prezipitazioa ondorengo estaziotan: San Prudentzio 26.8 mm, Urkiolan 26.8 mm eta Abetxukon 25.8 mm.

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea (mm)	Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan (mm)
San Prudentzio	30.1	Abetxuko-CHE	12.8
Urkiola	26.8	Urkiola	8
Abetxuko-CHE	25.8	San Prudentzio	7.8
Arrasate	22.3	Estanda	7.5
Estanda	21.3	Arkauti	7.5
Mañaria	18	Saratxo	7.2
Abetxuko	17.7	Arrasate	7.1

Hilaren 18an, GIDEak Portugalgo kostaldearen parean jarraitu zuen ezegonkortasun dinamikoa eraginez eta arratsaldean ekaitz handiak izan ziren.

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea (mm)	Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan (mm)
San Prudentzio	30.1	Abetxuko-CHE	12.8
Urkiola	26.8	Urkiola	8
Abetxuko-CHE	25.8	San Prudentzio	7.8
Arrasate	22.3	Estanda	7.5
Estanda	21.3	Arkauti	7.5
Mañaria	18	Saratxo	7.2
Abetxuko	17.7	Arrasate	7.1



GIDEA Penintsulan sartu zen hilaren 19an. Neurtutako datu azpimarragarrienak Punta Galeakoa, 28.7 mm/h, eta Ameraunekoa, 28.4 mm/h izan ziren.

Estazioa	Prezipitazioa ordubetean (mm)	Estazioa	Prezipitazioa 10 minutuan (mm)
Punta Galea	28.7	Punta Galea	12.8
Ameraun	28.4	Otxandio	12.5
Sodupe-Cadagua	23.8	Arboleda	11.8
Arboleda	22.8	Gardea	10
Oiartzun	20.7	La Garbea	9.4
Otxandio	19.6	Urkiola	8.9
Cerroja	19.1	Sodupe-Cadagua	8.5

*Osteguna, hilak 17: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 12etatik 22etara ordu lokala. Alerta Laranja prezipitazio handiagatik Gipuzkoa ekialdean eta Araba ekialdean 14etatik 20etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 12etatik 22etara ordu lokala. Ostirala, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 18etatik 24etara ordu lokala. Larunbata, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 15etatik 21etara ordu lokala.*

- Hilaren 22an, goi-geruzetan askaturiko aire hotzeko poltsa txiki batek, gainazalean islatu zena, Atlantikoan jarraitu zuen, Kantauri itsasoaren iparraldean. Han kokatuta, ezegonkortasuna eragin zuen gurean eta zaparrada handiak eta trumoitsuak bota zituen. Aipatzekoak dira hilaren 23ko goizaldean jasotako 21.1 mm/h Sangronizen eta 15.3 mm/h Ereñozun.

Estazioa	Prezipitazioa ordubetean (mm)
Sangroniz	21.1
Ereñozu	15.3
Miramón	13.8

*Asteartea, hilak 22: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Kantauri isurialdean 18etatik 24etara ordu lokala. Asteazkena, hilak 23: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Kantauri isurialdean 18etatik 24etara ordu lokala. Osteguna, hilak 24: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 00etatik 03etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea:*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://meteodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.